Añade que también es verdad que su Grupo ha adelantado que les parece bien reflexionar sobre el servicio de udalbus, y que es algo que se está haciendo continuamente con Euskotren; y que así, ha habido varias modificaciones para mejorar el servicio, desde que está en concesión, y que si ahora se plantea efectuar un estudio no sólo del udalbus, sino del tranvía, transporte interurbano que tiene paradas en Eibar, etc., y con ello se consigue hacer un servicio mejor; ello no es malo.

Dice más adelante que habrá que ver lo que supone dar un mejor servicio y si se puede hacer con 500 euros al día, pues no hay que olvidar que en este servicio, un 10% son los ingresos por billetes y un 90% es aportación municipal.

Se verá, prosigue, si son capaces de dar respuesta a solicitudes individuales para poder hacer que su suma implique

guztiarentzako hobekuntza interesgarriak dakartzan; eta ikusi egin beharko da azterketa hori nola hezurmamitzen den; Euskotrenen bidez egingo den edo kanpoko enpresaren bat hartu beharko den.

Mendicute jaunak baieztatu du agian hau gerta litekeela: gastu handiagoa eginda, zerbitzu gehiago eskainita, Udalaren kargu geratuko den diru-portzentajea txikiagoa izatea.

Hobe horrela balitz, dio alkateak, baina horrela izateko txartel-salmenta asko handitu beharko da; eta, bere ustez, zerbitzua hobetzen bada, zerbitzuaren kostuak ere gora egingo du eta orain baino kostu handiagoa izango du, erabiltzaileak ere gehiago izan arren, orain 50.000 inguru, urtean.

Mendicute jaunak berriro hitza hartu du eta esaten du tranvia ezin dela hartu udalbusaren zerbitzu osagarritzat, alderantziz baizik: tranvia, herria sortaldetik sartaldera zeharkatzen duen zerbitzua, izan behar delako zerbitzu nagusia, huraxe baita gehien lotzen

mejoras interesantes para todos, y habrá que ver cómo se articula el estudio; si se efectúa a través de Euskotren, o de una empresa externa.

El señor Mendicute afirma que cabe la posibilidad de que se concluya que con un mayor gasto, ofreciendo más servicios, el porcentaje que asuma el Ayuntamiento sea más bajo.

El señor Alcalde dice que jójala que eso fuese así!, pero que mucho tendría que aumentar el billetaje, y que él cree que una mejora del servicio, con un aumento del coste del servicio, va a costar más, aunque aumenten los usuarios que ahora son 50.000 al año.

El señor Mendicute interviene de nuevo para decir que no se debe considerar al tranvía como servicio complementario del udalbus, sino al revés; pues consideran que el tranvía, que atraviesa la ciudad de este a oeste, debe de ser el servicio principal, porque es el que mejor conecta

duena eta trafikoan eragin gutxiena duena.

Mozioa bozkatuta, aho batez onartu da.

y menos impacto produce en el tráfico.

Sometida a votación la moción, se aprueba por unanimidad.

7. ATALA.

Irabazi taldearen mozioa udalerriko erabilera publikoko guneetan glifosatoa edo hebizida kimikoak erabiltzeari buruz.

Idazkariak dio ekainaren 16an Irabazik mozio-testu bat aurkeztu zuela, eta gaur, talde politikoek sinatutako testu bat eman diotela. Azken hori da irakurriko duena.

Mozioa, Eibarren egiten den glifosatoaren erabilera buruzkoa.

“Arrazoiak:

-Glifosatoa gizakientzako kantzerigenoa izan daitekeen substantzia gisa sailkatu du Kantzerraren inguruko Ikerketaren Agentziak (IACR). Erakunde hori Osasunaren Mundu Erakundearren (OME) kide da.

-Glifosatoa da salgai dauden herbicida

PUNTO 7º

Moción de Irabazi sobre la utilización de herbicidas químicos en los espacios de uso público del territorio del término municipal.

Indica la Secretaria que el 16 de junio se presenta por Irabazi un texto de moción, y que posteriormente, hoy, se le ha presentado un texto suscrito por todos los grupos políticos, al cual da lectura.

Moción sobre el uso del glifosato en Eibar.

“Teniendo en cuenta que:

- El Glifosato ha sido catalogado como agente “probablemente cancerígeno para los seres humano” por parte de la Agencia de Investigación sobre el Cáncer (IACR) Organismo que forma parte de la OMS (Organización Mundial de la Salud).
- El glifosato es la base de la gran

gehienetan oinarria. Eta herbicida gehien produzitzen dituen etxeak ere erabiltzen du, Monsantok alegia.

-Azkenaldian, orokortu egin da herbicida kimikoen erabilera. Toki askotako belar txarrak kontrolpean edukitzeko erabiltzen da: errepideetako arekak, zerbitzu-sareak, parkeak, jardinak, gune publikoak eta kirol-instalazioak. Baino ez dira orokortu substantziak erabiltzeko segurtasun neurriak: erabiltzailea babesteko neurriak eta tratamendua egiten den inguruan bizi diren herritarren jakinaren gainean jartzea.

-Irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak zehazten du produktu fitosanitarioak modu iraunkorrean nola erabili. Bertan dio udalek zuhurtasun-printzipioa aplikatu dezaketela, eta produktu fitosanitarioen erabilera mugatu edo debekatu dezaketela inguru edo egoera zehatzetan.

-Errege Dekretu horrek ere ezartzen du eskudun organoek ezarriko dituztela bitartekoak beren agindupeko lurretan dauden herritarren informatzeko eta sentsibilizatzeko. Arreta berezia jartzen du herbicida kimikoen erabilera giza-osasunen izan ditzakeen arriskuetan eta kalte larri eta kronikoetan. Hartara, bestelako konponbideak proposatzen

mayoría de los herbicidas comercializados, incluyendo el más extendido producto, Monsanto.

- Se ha generalizado la aplicación de herbicidas químicos para el control de la vegetación en cunetas de carreteras, redes de servicios, parques, jardines, espacios públicos e instalaciones deportivas diversas, cuando esta aplicación se realiza sin la adecuada protección personal ni el necesario aviso de peligro para los habitantes del municipio.

- El Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre establece la actuación para el uso sostenible de productos fitosanitarios en España, indicando que “La Administración Municipal puede aplicar el principio de cautela, limitando o prohibiendo el uso de productos fitosanitarios en zonas o circunstancias específicas”.

- El mismo RD indica también que los órganos competentes establecerán para sus ámbitos territoriales medidas para informar y sensibilizar, en “especial referencia a los riesgos resultantes de su uso y posibles efectos agudos y crónicos para la salud humana, proponiendo la utilización de alternativas no químicas, por ejemplo, mediante métodos

ditu, metodo mekanikoak edo termikoak, besteak beste.

-Herbizida kimikoen erabilera kontrako eragin handia du suteen prebentzioan, landaredia izugarri lehortzen baitu. Gainera, zuhaitz gazteei eragiten dizkien kalteak ezin txarragoak dira.

Goiko arrazoi horiek batetik eta herritarra giza-osasunerako kaltegarriak diren produktuen eragin-esparruan jartzearekin lotuta dauden beste arrazoi batzuk bestetik, Osoko bilkurari proposatzen diogu azpiko hitzarmenak adostu ditzala.

HITZARMENAK

1.- Udalak udalerriko herritarren osasuna eta ondare naturala babesteko erantzukizuna hartuko du, 1311/2012 Errege Dekretuak agindu bezala. Horretarako, herbizida kimiko guztieng erabilera murriztuko du nekazaritza esparru guzietan, errepiideetan edota zerbitzu-sareetan, udalerriaren azalera osoan.

2.-Herbizida kimikoak ez-kimikoekin ordezkatuko dira, osasunari eta ingurumenari kalterik eragin ez diezaioten. Ordezko metodoak

mecánicos o térmicos.

- El efecto de estos productos es muy negativo en la prevención de incendios, al adelantar notablemente el secado de la cubierta vegetal, además del efecto visiblemente nefasto causado sobre el arbolado joven.

Considerando estos y otros muchos factores concernientes la exposición pública de productos dañinos para la salud, se somete a la consideración del Pleno la aprobación de los siguientes

ACUERDOS

1. Que este Ayuntamiento se responsabilice de la protección de la salud de los vecinos del municipio y su patrimonio natural tal y como recomienda el Real Decreto anterior, reduciendo la aplicación de herbicidas químicos para todos los usos agrarios en los espacios de uso público, carreteras o redes de servicios en la totalidad del territorio del término municipal.
2. Que esta práctica sea sustituida por métodos no químicos, que no dañen la salud ni el medio ambiente, como mecánicos y térmicos que se aplican en

mekanikoak edo termikoak izango dira, Europako Batasuneko herrialde gehienetan aplikatzen direnen berdinak. Halako metodoek enplegu gehiago sor dezakete.

3.-Goiko Errege Dekretuak gomendatu bezala, Udalak neurriak hartuko ditu, herritarrak jakinaren gainean jartzeko, herbizida kimikoek osasunean eta ingurumenean duten kaltearen berri eduki dezaten. Herbizidek nekazaritza-arloan duten arriskuaz ere informatuko du, landa-guneetan gutxiago erabili daitezen eta, erabiliz gero, segurtasun neurriak beteta izan dadin.”

Agirre andreak hartu du hitza eta esan du Zerbitzu Arloko teknikariak egindako txostena aipatu nahi duela. Bertan jasotzen da jardinetako zerbitzuek baztertu egin dutela glifosatoa erabiltzea urtarrilaz geroztik, baina Agirre andreak dio hori ez dela horrela; izan ere, une honetan ez dira metodo mekaniko eta termikoak bakarrik erabiltzen ari, Eibarrek ez duelako aukerarik hainbeste lan eskuz egiteko eta gainera ez da ikusten patogenoei aurre egiteko surik egiten denik.

Gaineratu du oso zaila dela glifosatoa desagerraztea, osagai herbizida ia

la mayoría de los países de la Unión Europea y que tienen un mayor potencial de generación de empleo.

3. Que, tal y como también recomienda el Real Decreto antes aludido, tome las medidas oportunas para sensibilizar e informar a la población de los riesgos para la salud y el medio ambiente que supone el uso de herbicidas químicos, también en lo referente a sus usos agrarios, para fomentar una reducción de uso en el medio rural y una aplicación en condiciones de seguridad.”

Interviene la señora Aguirre quien afirma que desea referirse al informe del Técnico del Departamento de Servicios, ya que en el mismo se recoge que desde el mes de enero los servicios de jardinería han descartado el uso de glifosato, pero que debe indicar que esto no es así ya que en este momento no se están utilizando sólo métodos mecánicos y térmicos, pues Eibar no tiene posibilidades de tanto trabajo manual ni se ven fogatas para ataque a los patógenos.

Añade que es muy difícil eliminar el glifosato, pues casi en todos los

guztietan agertzen delako elementu hau, eta beste ordezko bat egon arren bost aldiz garestiagoa dela eta ez duela erabat ziurtatzten toxikotasunik eza.

Produktu hau, dio, debekatuta dago Frantzian, eta Alemanian baldintza jakin batzuetan baino ez da erabiltzen; horregatik, Europa aldean mugimendu sendo bat sortu da (milioi bat sinadura jaso dituzte) glisofatoa erabiltzearen aurka.

Amaitu du esanez arazoari oraindik ez zaiola irtenbide eraginkor eta merke bat eman; beraz, hasieran bere mozioak debekua proposatzen bazuen ere, eta ikusita beste taldeek debekuaren ordez murrizketa proposatzen dutela, bera ere ados dagoela murrizketa planteatzearekin, oraingoz erabateko debekua ez delako oso bideragarria.

Alkateak adierazi du txostenetan helarazi zielu taldeei eta ez dagoela kontraesanik txostenak dioenaren eta errealityearren artean; urtarrilaz geroztik ez da glifosatorik erabili tratamendu hori egiteari utzi baitzaio, eta horregatik ez direla suak ikusten.

Gaineratu du Zerbitzuetako Batzordeak baloratu beharko duela zer egiten ari den beste leku batzuetan glisofatoa erabili

componentes herbicidas aparece este elemento, y que aunque hay otro sustitutivo, es cinco veces más caro y no asegura totalmente la no toxicidad.

Este producto, continúa, está prohibido en Francia e Italia, y en Alemania se utiliza en determinadas condiciones, por lo que hay una gran corriente en Europa, con un millón de firmas recogidas, en contra al uso de glifosato.

Finaliza afirmando que el problema es que todavía no se ha creado una alternativa eficaz suficientemente barata; por lo que, si en un principio su moción planteaba prohibir, por los demás grupos se ha sustituido la prohibición por la reducción, estando de acuerdo en esta reducción porque hoy por hoy la prohibición total es casi inviable.

El señor Alcalde afirma que remitió el informe del técnico a los grupos, y que no hay contradicción entre lo que dice el informe y la realidad; ya que desde enero no se utiliza glifosato, pues se ha dejado de hacer ese tratamiento, y es por lo que no se ven fogatas.

Añade que será la Comisión de Servicios la que tendrá que valorar lo que se está haciendo en otros lugares para, no

gabe zerbitzua eman ahal izateko.

Mankomunitateak ere ez du produktua erabiltzen eta bere lana egiteari utzi dio; eta hori arazo bat da, zeren eta azkenean “sasiek jango baikaituzte”.

Gaur-gaurkoz, hiru irtenbide daude: edo arekak garbitzeko langileak kontratatzeko gastua handitzen du, edo glifosatoa modu muritzagoan erabiltzen jarraitzen da, edo bestela ez da lan hori egiten.

Amaitzeko, esan du Zerbitzuetako Batzordeari helarazten diola gaiaz hausnartzen jarraitzeko beharra.

Errasti jaunak dio bere Taldea Aguirre andrearen iritzi beretsukoa dela zalantza handiak baitzituzten glisofatoaren erabileraen jarraipenari buruz; eta hainbat informazio iritsi zaizkiela gaiarekin lotutakoak; beraz, txostenak ez dituela zalantzok uxatzen.

Gaineratzen du bere Taldeak ere gaitzetsi egiten duela Udalak herbicida kaltegarriak erabiltzea.

Aguirre andreak adierazi du ez dela

utilizando glifosato, ser capaces de prestar el servicio.

La Mancomunidad tampoco lo utiliza, prosigue, y ha dejado de hacer la labor, lo cual constituye un problema, porque al final, indica, “nos van a comer las hierbas”.

A fecha de hoy, concluye, hay tres alternativas: o bien se incrementa el gasto en contratación de personal para limpiar cunetas, o se sigue utilizando el glifosato de manera más reducida, o bien no se hace el trabajo.

Finaliza diciendo que traslada la necesidad de reflexionar en el la Comisión de Servicios sobre el tema.

El señor Errasti afirma que la intervención de su Grupo va en la misma línea que la de la señora Aguirre, pues tenían muchas dudas de que se siguiese utilizando el glifosato, y que al respecto les han llegado varias informaciones, por lo que el informe no disipa las dudas.

Añade que su Grupo también condena el uso de herbicidas nocivos por parte del Ayuntamiento.

Indica la señora Aguirre que no sólo es

bakarrik areka kontu bat; baizik eta jardinei, parkeei, espaloiei eta eskailerei ere eragiten diela.

Ondoren, Mendicute jaunak hartu du hitza eta esan du aurkeztutako mozioak zalantza asko eragiten ziola bere Taldeari, batez ere, debeku hitzagatik; eta ez dutela behar besteko ezagutza teknikorik glisofatoaren erabilerari buruzko informazio sendo bat izateko, komunikabideetan irakurtzen dutenaz haratago.

Adierazi du inkongruenzia bat ikusten dutela txostenak zioenaren eta mozioa erretiratzeko eskaeraren artean; izan ere, ez zegoen glifosatoa ez erabiltzeko erabakirik, uste baitute prozesua behin-behinekoz egiten ari dela harik eta erabaki irmo bat hartu arte.

Alkate jaunak adierazi du iaz antzeko mozio bat aztertu zela Zerbitzuetako Batzordean, eta hartan oinarrituz hartu zela erabakia.

Aguirre andreak adierazi du Alkateak aipatutako mozioa ez zela Osoko

un tema de cunetas; sino de jardines, parques, aceras y escaleras.

Interviene a continuación el señor Mendicute quien afirma que la moción presentada le planteaba muchas dudas a su Grupo, sobre todo, por el término prohibición, y que no disponen de un conocimiento técnico como para tener una información formada sobre el uso del glifosato, más allá de lo que puedan leer en los medios de información.

Concluye afirmando que ven una incongruencia entre lo que decía el informe y la solicitud de retirada de la moción, porque no había una decisión de no utilizar el glifosato, pues entienden que se está haciendo de forma transitoria, hasta tanto se adopte una decisión.

Indica el señor Alcalde que el año pasado se trató una moción similar en la Comisión de Servicios, y que en base a la misma se adoptó la decisión.

La señora Aguirre indica que la moción a que se refiere el señor Alcalde no llegó a

Bilkurara iritsi, mahai gainean geratu baitzen.

Mendicute jaunak hartu du hitza eta esan du beste erakunde batzuetan ere aztertu zela gaia eta Bizkaiko Batzar Nagusiek, kasu, proposatu eta aholkatzen dutela glifosatoa ahalik eta gehien murriztea eta ez erabiltzea, betiere ezinbestekoa ez bada.

Adierazi du bere Taldea ez dela nor baloratzeko noiz den edo noiz ez den ezinbestekoa; horretarako daudela udal zerbitzu teknikoak. Eta bakarrik sartuko litzatekeela baloratzera edo erabakitzera, zerbitzuaren eraginkortasunari buruz sor daitezkeen zalantzen aurrean —zerbitzua ez bada erabiltzen—, edo beste elementu batzuk erabiltzeak ekar lezakeen gastuaren aurrean.

Amaitu du esanez gustatuko litzaiekeela gaia dagokion Batzordean eztabaidatzea, teknikariek eman dezaketen informazioarekin.

Jarraian, Benitez jaunak hartu du hitza eta esan du Osoko Bilkurara ekarri den mozioak hiriaren estetika-lanei egiten diela erreferentzia, baina tresna hori nagusiki uzta intentsiboetarako erabiltzen

Pleno, pues se quedó sobre la mesa.

Interviene el señor Mendicute para decir que se ha abordado el tema también en otras instituciones, y que así las Juntas Generales de Bizkaia, sugieren y recomiendan reducir al máximo posible y no utilizar el glifosato; salvo cuando sea imprescindible.

Indica que su Grupo no es quien para valorar cuando es o no imprescindible; sino que para ello están los servicios técnicos municipales, y únicamente podría entrar a valorar o decidir ante las dudas que puedan surgir sobre la eficiencia del servicio si no se utiliza, o el gasto que supondría utilizar otros elementos.

Finaliza afirmando que a ellos les gustaría que se debatiese el tema en la Comisión correspondiente, con la información que puedan dar los técnicos.

A continuación interviene el señor Benítez quien afirma que se trae esta moción a Pleno, que hace referencia a las labores de estética urbana, pero que es una herramienta que se utiliza

dela; eta munduko gosea desagerrarazi nahi bada, dauden uztek % 70ko edo % 80ko errendimendu maila eman behar dutela.

Produktu hau erabiltzen ez duten uztak — jarraitzen du— zomorroek eta sasiek jaten dituzte, eta ez litzateke egongo munduan nahikoa elikagairik populazioa elikatzeko; eta oraingoz, beraz, ez dago produktu hau ordezka dezakeen ezer.

Esan du, halaber, beldurra sorrarazten dela minbizia eragiten duela esanez; izan ere, haragi gorriek eragin dezaketen neurri berean eragin baitezake minbizia,edo ileapaintzaileek beren eguneroko lanean duten arrisku berbera izan dezakeela; nolanahi ere, keak erretzaile pasiboengan sortarazten duena baino arrisku gutxiago sortzen duela.

Glifosatoa, dio, legezko producto bat da, elikagai-ekoizpen handiak mantentzeko pentsatua dagoena; eta egia da pozoia dela, herbizada guztiak pozoi diren bezala, baina kontua dela maneiatzan jakitea, langilea babestuta.

Azkenik dio, hirietan belar-kentzea, Eibarren esate baterako, beste era batera

fundamentalmente para el mantenimiento de cosechas intensivas, y que si se desea quitar el hambre del mundo, tiene que haber cosechas que estén orden del 70% u 80% del rendimiento.

Las cosechas que no se someten a este producto, prosigue, son devoradas por los bichos, y la maleza, y no habría suficientes alimentos en el mundo como para poder mantener la población, y a día de hoy no hay nada que pueda sustituir a este producto.

Dice más adelante que se alarma un poco con el tema diciendo que produce cáncer, ya que puede producir cáncer en la misma proporción que lo producen las carnes rojas, o el riesgo que corren los peluqueros en su labor diaria, y produce menos que lo que genera el humo para los fumadores pasivos.

El glifosato, prosigue, es un producto legal, que está pensado para mantener las grandes producciones de alimentación, y es verdad que es un veneno, como lo son todos los herbicidas, y lo que hay que hacer es saber manejarlo, protegiendo al operario. Concluye afirmando que la eliminación de las hierbas en las ciudades, como en

egin daitekeela glifosatoa erabili barik; baina munduko elikagai-ekoizpenari eusteko glifosatoa erabiltzen jarraituko dutela, beste tresna hoberik ez dagoen bitartean.

Aguirre andreak dio soja transgenikoa existitzen bada edo alpapa transgenikoa, landare horien elementu genetikoa aldatu nahi izan delako dela; horixe baitzen modu bakarra glifosatoa ez erabiltzeko.

Benítez jaunak hartu du hitza berriro eta esan du glifosatoaren auzia hasi dela behin patentea galdu ondoren, zeren eta patentea zegoenean eta ondo ordaindu behar izan denean ez baita arazorik izan; baina patentea galdu eta denok erabiltzeko moduan jarri denean, orduantxe sortu da eztabaidea hau.

Gaineratu du elementu hau ordaindu ezin duten nekazariek uztaren % 70 galtzen dutela; eta, horregatik, munduko goseari dagokion arazoa dela, munduko populazioa elikatzeko arazoa, eta ez hiriko belarrak kentzekoa.

Irakurritako mozioa bozkatuta, aho batez

Eibar, se puede hacer de otra manera sin utilizar glifosato; pero que el glifosato para mantener las producciones mundiales de alimentos, hasta que no haya otra herramienta mejor, se seguirá utilizando.

La señora Aguirre afirma que si existe la soja transgénica o la alfalfa transgénica es porque se ha querido modificar el elemento genético de estas plantas, porque era la única forma de evitar el uso del glifosato.

El señor Benítez interviene de nuevo para decir que el debate del glifosato aparece cuando se pierde la patente, porque mientras ha tenido patente y ha habido que pagarla bien no ha habido problemas, pero que cuando se pierde la patente y es de uso común, surge este debate.

Añade que los agricultores que no pueden pagarse este elemento pierden el 70% de la cosecha, por lo que es un problema de hambre mundial, de mantener la población mundial, y no de eliminar las hierbas de la ciudad.

Sometida a votación la moción leída, se

onartu da.

aprueba por unanimidad.

8. PUNTUA. Galderak eta Erreguak.

- Cristobal jaunak hauxe galdetu du: ea zenbat ekarpen jaso diren Kirolaren Plan Estrategikorako (ekarpenak egiteko epea ekainaren 24an amaitu zen).

Alkate jaunak dio une honetan ez duela informaziorik.

Cristobal jaunak dioenez, haien nahi dutena da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea, azaldu zaielako zer pauso jarraitu behar zituzten Planaren egileek esanez hainbat batera kirol adituek lan egingo zutela eta informazioa emateko saio bat egingo zela herritarrentzat; baina, ez dakitela zer zabaldu den herritarrei begira.

- Mendicute jaunak hauxe dio: Arragueta kaleko eraikinean sutea gertatu zenean, bere Taldeak aipatu zuen kalea berroneratzeko premia handia zegoela; Hirigintza Batzordean eta Osoko Bilkuran,

PUNTO 8º. Ruegos y Preguntas.

- La del señor Cristobal preguntando cuántas aportaciones se han recibido para el Plan Estratégico del Deporte, cuyo plazo se cerraba el 24 de junio.

Afirma el señor Alcalde que no dispone en este momento de la información.

Dice el señor Cristobal que lo que desean es que sea una participación más abierta a la ciudadanía, porque se les ha explicado los pasos que se iban a seguir por parte de los redactores del Plan, indicándoles también que iban a trabajar con ellos expertos en deporte, y que se iba a dar una sesión explicativa para la ciudadanía; pero que desconocen lo que se ha abierto a la ciudadanía.

- La del señor Mendicute, diciendo que cuando se produjo el incendio del edificio de viviendas en la calle Arragueta, su Grupo comentó la necesidad de dar un impulso a la regeneración de dicha calle;

esan zuten lehentasuna zuela hondatuta dauden 11 eta 13 zenbakiko eraikinetan esku-hartzea, eta zerbait egin beharra zegoela onartu bazen ere, ez dakitela hasi ote diren horretan lanean. Beraz, eskatzen du, ezer egin ez balitz, has daitezela ahalik eta azkarren.

- Mendikute jaunak dio Jardiñeta kaleko auzotarren kexak jaso dituztela esanez botoa ematean ez zela egiaztatzen haien identitatea eta, beraz, edozeinek hartu zezakeela gutun-azala postontzitik eta bozkatu; eta kezka adierazi dute, uste dutelako prozesuak berme guztiak eman behar dituela.

- Mendicute jaunak hauxe dio: udaberria pasatu da, eta ustez NANaren bulegoa martxan egon behar zen; dio bere Taldeari gustatuko litzaiokeela gaian dauden zailtasunak gainontzeko beste udal taldeekin partekatzea; eta haien prest daudela beharrezkoa den bultzada politikoa emateko, zerbitzua lehenbailehen abian jartzeko.

que en la Comisión de Urbanismo y en el Pleno dijeron que consideraban prioritario actuar en los edificios números 11 y 13 que están en estado ruinoso, y que aunque se entendió que sí que había que hacer algo, desconocen si se ha comenzado a trabajar en ello. Solicita que, caso de que no se hubiera hecho nada, se empiece a la máxima celeridad.

- La del señor Mendicute diciendo que han recibido quejas de vecinos de Jardiñeta diciendo que al entregar el voto no se comprobaba su identidad y que por tanto, cualquier persona podría haber sacado el sobre del buzón y votar; y que es un tema que les preocupa porque consideran que debe de ser un proceso garantista.

- La del señor Mendicute diciendo que ha pasado ya la primavera, por lo que se suponía que tenía que estar la oficina del DNI en funcionamiento, y que les gustaría que las dificultades que haya en el tema sean compartidas con los demás grupos municipales, ofreciéndose por su parte a dar el impulso político necesario para facilitar la implantación del servicio

Alkate jaunak adierazi du Arragueta kaleari dagokionez, sutea gertatu zenean, esparrua garatzen interesatuak egon zitezkeen bi talde edo sustatzaile jarri zituela harremanetan; eta, berak dakiela, harremanak izan direla jabe batzuekin, baina, antza denez, ez dela asko aurreratu unitate korapilatsua baita.

Telleria andreak hartu du hitza eta esan du hirigintzan planteatutako lanetako bat dela, eta egin egingo dela.

Jarraian, Alkate jaunak adierazi du, Jardiñetaren kontuan, nahiz eta esan Alkatea batere proposamenik gabe joan zela bilerara hori ez dela egia; parte-hartze proposamen bat eraman zuen baina ez zen itxia eta, beraz, ekarpenak egon ziren eta bozkatu egin zen; eta bileran ezarritako prozedura jarraitu dela.

Gaineratu du bozkatu duten etxebizitza guztiak identifikatu direla; boto baliogabe

cuanto antes.

Afirma el señor Alcalde que en cuanto al tema de la calle Arragueta, cuando se produjo el incendio, puso en contacto a dos grupos o promotores que podrían estar interesados en desarrollar el ámbito, y que le consta que ha habido contactos con parte de la propiedad, pero que parece que no se ha avanzado mucho ya que es una unidad complicada.

Interviene la señora Telleria para decir que es uno de los trabajos planteados en urbanismo, y que se va a hacer.

Prosigue el señor Alcalde diciendo que en cuanto a Jardiñeta, por más que se ha intentado vender que el Alcalde fue a la reunión sin ninguna propuesta de participación, ello no es cierto, ya que llevó una propuesta de participación pero que no era una propuesta cerrada, y por tanto hubo aportaciones, y hubo una votación, y que se ha seguido el procedimiento establecido en la reunión. Añade que se ha identificado a todas las viviendas que han votado, habiéndose

bat egon dela eta ez dela boto bikoitzurik egon; eta bihar udaltzainburuak emaitzen zenbaketa egingo duela.

NANaren bulegoa dela eta, esan zen instalazioak udaberria ezkerro prest egongo zirela eta hala izan dela, lokala lagatzea adostuta baitago; eta, berak dakiela, Ministerioa mugikortasunerako barne-lehiaketa batean dagoela sartuta NANaren bulegoetako langileen artean, eta uztailaren 5ean amaitzen dela epea.

Gaineratu du lanpostuaren profila, nonbait, administrariarena izango dela.

Mendicute jaunak adierazi du lehen galdera erregu bihurtzen duela eraikinak oso hondatuta daudelako eta haien nahiko lukete aitorpen edo deklarazioa lehenbailehen egitea, inolako ezbeharrik ez gertatzeko.

Jardiñetari buruz, bere Taldeak errespetu osoa dio Coliseoko bileran erabakitako prozesuari, eta hauxe eskatzen zuela: gutun-azala entregatzean pertsona

dado un voto nulo y sin que se hayan producido duplicidades de voto; y que mañana el jefe de la policía municipal hará recuento de los resultados.

En cuanto a la oficina de expedición del DNI, prosigue, se dijo que las instalaciones estarían listas para después de la primavera y que así ha sido, estando así mismo acordada la cesión del local; y que por lo que él sabe el Ministerio está en la fase de un concurso interno de movilidad entre los trabajadores de las oficinas del DNI, finalizando el plazo del 5 de julio.

Añade que parece ser que el perfil de puesto va a ser administrativo.

El señor Mendicute afirma que la primera pregunta la convierte en ruego porque los edificios están en estado ruinoso y desean que la declaración se haga lo más pronto posible, antes de que pueda ocurrir ninguna desgracia.

Añade que en cuanto a Jardiñeta, su Grupo respeta el proceso decidido en la reunión del Coliseo, y que lo que solicitaba era que a la hora de entregar

identifikatzea, egiaztatzeko pertsona hori benetan bizi dela bota emateko baimendutako etxebizitzan.

el sobre se identificase a la persona para comprobar que esa persona vive efectivamente en la vivienda autorizada para emitir voto.

- Garate andreak esan du komunikabideen bidez jakin dutela arbitro-lanak egiten zituen gazte bati eraso egin diola jokalari batek, futbol 7 txapelketa batean; eta txapelketa Eibarko Kirol Patronatoak eta Elgoibarko Kirol Patronatuak antolatu zutela; eta entzun duena, patronatu biek erabaki dutela akusazio partikular gisa aurkeztea erasotzailearen aurke; eta, horren guztiaren informazioa jaso nahi duela.

- La de la señora Garate diciendo que han sabido por los medios de comunicación que un joven que estaba ejerciendo de árbitro ha sido agredido por un jugador en un campeonato de fútbol 7 y que el campeonato estaba organizado entre el Patronato de Deportes de Eibar y el Patronato de Deportes de Elgoibar, y que también tiene entendido que ambos Patronatos han decidido personarse como acusación particular contra el agresor; por lo que solicita información.

Alkateak adierazi du erasotuari lagundu ziola eta debekatu egin duela erasotzailea instalazioetan sartzea; halaber, esan du salaketa jarri dela Ertzaintzan baina ez akusazio partikularra; hark dakiela, erasotuak berak jarri duela.

Afirma el señor Alcalde que acompañó al agredido y que ha prohibido la entrada en las instalaciones al agresor, así como que se ha presentado denuncia en la Ertzaintza, pero no acusación particular, que por lo que sabe, la ha presentado el propio agredido.

- Garate andreak dio orangoan ere komunikabideen bidez jakin dutela

- La de la señora Garate diciendo que también a través de los medios de

Kirolaren Plan Estrategikoa lantzen ari direla eta, horregatik, Kirol Patronatuarekin bilera bat eskatzen dutela Planaren berri emateko.

comunicación han tenido noticia de que se está elaborado el Plan Estratégico del Deporte, por lo que solicitan una reunión del Patronato de Deportes para dar cuenta del Plan.

- Abanzabalegui andreak esan du Udalbatzarra hasi den bezala amaitu dela: proposamenak eginez batzordeetan gaiak kudea daitezen; beraz, denei eskatzen die Osoko bilkuran mozioak aurkeztu ordez, dagozkien batzordeetan egin daitezela proposamenak.

- La de la señora Abanzabalegui diciendo que el Pleno finaliza como comenzó: haciendo propuestas para que se gestionen temas en las comisiones; por lo que solicita a todos que en vez de presentar mociones al Pleno se hagan las propuestas en las propias comisiones que correspondan.

- Aguirre andreak dio Irabazik ekainaren 28ra begira aurkeztutako mozioak ez zuela aurrera egin, eta eskatzen du jasota gera dadila Eibarko Udalak ere bat egiten duela ospakizunarekin eta Gehituk egin duen adierazpena ere deklarazio instituzionaltzat gera dadila.

- La de la señora Aguirre diciendo que no prosperó la moción que presentó Irabazi de cara al 28 de junio, por lo que solicita que quede constancia que el Ayuntamiento de Eibar se suma a la celebración que ese haga y que la declaración que ha hecho Gehitu quede también como declaración institucional.

Alkateak baieztau du Berdintasunaren Batzordeak adierazpen bat onartu duela, ekainaren 28an egingo den elkarretaratzean.

Afirma el señor Alcalde que la Comisión de Igualdad ha aprobado una declaración que se leerá el 28 de junio en la concentración va a celebrarse.

Gaineratu du malgua izan nahi duela eta ez dituela hartu nahi muturrekoak eman dezaketen erabakiak; baina Bozeramaleen Batzordeak esaten badu gai bat mahai gainean geratu dela, debekatu egingo duela hartaz berba egitea Osoko bilkuran; ez baita onargarria gai bat mahai gainean geratzea eta galdera eta erreguetan ateratzea.

Aguirre andreak baieztago du haien berek adierazi ziotela gaia Osoko bilkuran ateratzeko.

Alkate jaunak galdeku dio ea nortzuk diren haien, eta Aguirre andreak erantzun du mahaikoak direla.

- Ibañez andreak dio Errekatzuko auzotar batzuek bere Taldera jo dutela Errekatzuko hirigintza-egoerari buruz galdezko; izan ere, gai hori Bozeramaleen Batzordetik pasatu zen 2015eko irailaren 13an; eta 2016ko irailaren 15ean, bilera bat egon zen berrogeita bost bat auzotarrekin, non Alkate jaunak hainbat aukerari buruzko azalpenak eman zituen; eta gaiaren

Añade que desea ser flexible y que no quiere adoptar decisiones que parezcan radicales, pero que si la Junta de Portavoces dice que un tema se queda encima de la mesa, va a prohibir que se hable en el Pleno sobre él, porque no es válido que un tema se quede encima de la mesa y se saque en ruegos y preguntas.

La señora Aguirre afirma que ellos mismos le indicaron que sacase el tema en el Pleno.

El señor Alcalde le pregunta quienes son ellos, contestando la señora Aguirre que los de la mesa.

- La de la señora Ibañez diciendo que varios vecinos de Errekatzu se han dirigido a su Grupo para preguntar sobre la situación urbanística de Errekatzu, porque este tema pasó por la Junta de Portavoces el 13 de septiembre de 2015 y el 15 de septiembre de 2016 hubo una reunión con unos cuarenta y cinco vecinos en la que el señor Alcalde explicó las diferentes opciones que se

inguruan ea beste berririk dagoen jakin nahi duela, badirelako bederatzi hilabete bilera egin zenetik.

- Ibañez andreak dio ekainean gaudela, aurrekontua orain dela gutxi onartu dela, eta jakin nahiko lukeela ea zer asmo duen gobernu taldeak 2018ko aurrekontuari begira; eta ea egutegiren bat egin behar duen ez gertatzeko aurten gertatu dena.

Alkate jaunak adierazi du lehen gaiari dagokionez, zuhurtzia eskatzen duela aurreikuspenik ez sortzeko; bi sustatzaile arri baitira ados jarri nahian Errekatxurena garatzeko.

Gaineratu du ulertzen duela jendea zain egotea, baina hirigintzan bederatzi hilabete epe motza dela; nolanahi ere, egia da iraungitze-data bat jarri beharko zaiela bi sustatzaileren arteko negoziazioei, eta irtenbideren bat proposatu akordiorik ez badago; baina ez du espektatibarik sortu nahi harik eta negozioazioen emaitza jakin arte, ahaztu

podían dar, y que desea información sobre si hay alguna novedad sobre el tema, pues han transcurrido ya nueve meses desde esa reunión.

- La de la señora Ibañez diciendo que se está en junio, que el presupuesto ha comenzado a andar hace poco, y que sería interesante saber qué intenciones tiene el equipo de gobierno de cara al presupuesto de 2018, y si se va a elaborar algún calendario para que no vuelva a ocurrir lo que ha ocurrido este año.

Afirma el señor Alcalde que en relación a la primera cuestión, ha solicitado prudencia por no generar expectativas, ya que hay dos promotoras que están estudiando el ponerse de acuerdo para desarrollar Errekatxu.

Añade que entiende que la gente esté esperando, pero que en urbanismo nueve meses es un plazo corto, aunque es verdad que tendrá que poner una fecha de caducidad a las negociaciones entre las dos promotoras, y planear alguna alternativa caso de que no haya acuerdo; pero que no quiere abrir ninguna expectativa hasta que no sepa

gabe arlo korapilatsua dela hirigintza-zama dezenterekin.

Azkenik, esan du aurrekontuei dagokienez, gobernu taldearen asmoa dela lehenbailehen onartzen saiatzea eta posible bada aurten izatea, hobe.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta gaueko hamarrak hamar gutxi izanik, Alkate jaunak bilera altxatzen du, guzi honetaz, nik Idazkari Orokorrak fede ematen dudalarik.

el resultado de dichas negociaciones, sin olvidar que es un ámbito complicado con importantes cargas urbanísticas.

Concluye afirmando que en cuanto a los presupuestos, la intención del equipo de gobierno es intentar aprobarlos cuanto antes y si se puede dentro del este año, mejor.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintiún horas cincuenta minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.